



Hiri debekatuaren mapa

Hiriak genero ikuspegitik

■ **Antolaketa.** Gizonen eta emakumeen esleutako rolen arabera antolatuta izan dira hiri burgesak, XIX. mendetik hona. Hala, bizitza profesionala eta etxe barrukoa bereiziz, bi espazio sortu dira: bata, kalea, eremu publikoa, ekoizteko eta parte hartzeko esparrua, gizonena;

bestea, etxea, gune pribatua, haurrak eta ezinduek zaintzeko eremua, andreena.

■ **Gizonentzako hiriak.** Autoa duten eta lanean ari diren pertsona independenteentzat egiten dira hiriak. Hala, emakumeen ez ezik, adinekoei, urteen edota ezintasuna duten pertsonen ere trabak jartzen dizkie.

■ **Beldur eragileak.** Laguntza lortzea zaila den lekuek beldurra areagotzen dute. Argi faltak, erasotzaileentzako ezkutalekurik ez edukitzeak, inguruan jenderik ez egoteak... Eragina dute.

Emakumeak hirian

■ **Oinez.** Kaleetako oztupoek emakumeen eragiten diete, ba-

tez ere, oinez gehiago mugitzen direlako.

■ **Zerbitzuak.** Andreen gehiago erabiltzen dituzte zerbitzu publikoak, kanpoko espazioak eta erosketetarako guneak.

■ **Joan-etorriak.** Oro har, gizonen lanerako joan-etorri bakarra egiten dute astegunetan. Andreen gehiago egiten dituzte.

Punturik ilunena, rolen itzala



Bilbon emakumeek jasandako erasoak gaitzesteko egindako elkarretaratzea. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Genero heziketaren bidez eraikitako rola daude, adituen ustez, emakumeen gaineko sexu erasoaren eta bortxaketaren oinarrian

Hirien egiturek andreen aurkako indarkeria «bermatzen» dutela diote feministek

Maitte Asensio Bilbo

Emakume askok debekatuta dute gauez auzotik bakarrik ibiltzea. Kalean ez dago debeku horren berri ematen duen berriazko seinalerik, baina gizartearen aski onartuta dago. Beldurrak eragozten baitie nonbaitetik igarotzea, eraso sexuala egingo dieten beldurrak. Etxera lagun dituzten eskatu edo ibilbidez aldatu behar dute, leku argitsu edo jen-

ko Bilbo: emakumeentzako hiri debekatuaren mapa azterlanak. Bilboko zortzi auzotan egindako ikerketak emakumeentzako 30 puntu beltz baino gehiago detektatu zituen; auzotako emakumeek nabarmendu zituzten guneok. Horietako batean, hain zuzen, emakume bat bortxatu zuten iragan astean.

Hiri debekatuaren mapek beldur sententzia areagotzen duten faktoreak eta lekuak identifikatu ohi dituzte. Hausnarketa, baina, harago doa: arazoa ez da soilik toki batzuetan argi gutxiago dagoela edo toki bakartiak direla. Sexu erasoaren oinarrian, sistema patriarkalaren botere banaketa dagoela argi du Bilgune Feministako Oihane Calvok: «Leku ilun batean argia ipinita ere, beldurra sentitzen jarraituko dugu; eraso-

tzailak ez ditu hainbeste erraztasun izango, baina nahi izanez gero, eraso egingo du. Oinarria zertu behar da». Hartara, sexu erasoak eta bortxaketak gertaera isolatuak bailira bezala tratatzen uzteko eskatzen dute feministek aspalditik.

Gizarte egituren eta bertako genero heziketan dago giltza. Emakumeen eta gizonen esleutako rolen arabera antolatutako gizartearen, rol horiek konturatu gabe barneratzen dituzte. Heziketa prozesuan zehar ingururik jasotzen diren estimulu guztiek eragiten dute. Osagai asko dira: haurrentzako ipuinak, gizarte ereduak, aisialdirako produktuetako estereotipoak...

Beldurra

«Beldur izateko eta arriskua sen-

titzeko hezi gaituzte», dio Nerea Elias antropologoak. Izan ere, kale ilun batean, gizonen eta emakumeen sentitzen duten beldurra aski ezberdina da Oihane Calvoren iritziz: «Gure beldurra ez da balizko lapurreta batek eragina, bortxatuko gaituzten beldurra baizik. Emakumeak garelako sentitzen dugu, eta gizonen batek egingo digulako». Pripublikarrak artista talde feministak kontrolaren gaineko hausnarketa egin du, genero ikuspegitik bideratuta. Maria Mur Dean kideak azaltzen duenez, beldurra kontrolerako erabiltzen dute emakumeek: «Hirian bakarrik ibiltzeko beldur bazara, zeure burua kontrolatzeko bideratzen duzu, eta, azkenean, ez zara edozein lekutatik joaten. Ez duzu gizonen duten askatasuna».

Baina beldur horrek badu bestelako ondorioak. Emakume gehienak blokeatuta gelditzen dira sexu erasoaren egiten dietenean. Erasotzaileari aurre egiteko aukerarik dagoenean ere, beldurra indartsuagoa izan ohi da. Nerea Eliasek argi du hori: «Emakumeak aurre ez egiteko, erasokorrak ez izateko hezi gaituzte. Bete esan digute gizonen indartsuagoak direla. Eragin handiagoa du sinbolikoki eraikita daukagun ezberdintasun horrek, alde fisikoak baino: ez dugu geure burua erasotzaile moduan ikusten».

Ildo horretan, Virginie Despentes idazle feminista frantziarrak kritika gogorak egiten dizkio genero heziketari, mugarriz ezarritik. Honelaxe dio *King Kong Theorie* liburuan: «Bortxaketa gainditu beharko ez nukeen krimen beldurgarria dela irakatsi didalako, hankak indarrez irekitzen dizkidan gizon bat jotzen irakatsi gabe hezi nauen gizartearekin nago haserre». Horrekin bat dator Maria Mur Dean: «Emakume bakoitzak emakume izateagatik duen ahultasun rol hori barneratzen du».

Bortxaketak eta sexu eraso bortzizak dira generoen arabera antolatutako gizartearen adierazpenik krudelenak. «Sexualita-